



ELKARRIZKETA

**GONZALO SAENZ DE SAMANIEGO**

EAEko Nekazaritza eta Arrantza sailburua



«Zuzenbideak eta legeak exijitu egingo dute gu European egotea» /16-17

HEZKUNTZA

## Sektore guztien erantzuna jaso du PPren Kalitate Legeak Bilboko kaleetan

Irakasle, ikasle nahiz guraso elkarteak, sindikatu guztiak, PP ez beste alderdiak eta Jaurlaritza izan ziren

Espainiako Gobernuaren hezkuntza proiektuak ekarriko dituen ondorio larriez ohartarazi zuten atzo, Bilbon, Kalitate Legearen aurka protestatzeko bildu ziren milaka lagunek. Kalitateko hezkuntza eleanitza eta heziketa eredu integratzaile eta parte-hartzailea eskatu zuten, aspaldiko esparru zabala bildu duen manifestazioan. Hezkuntza sektoreko elkarte, alderdi politiko eta sindikatu ia guztiak elkarrekin jardun zuten, baita Eusko Jaurlaritza kideek ere, denek Kalitate Legeari ezezko biribila emateko. /7-8



LUIS TEJIDO / EFE

GEHIGARRIA




LEHENDAKARITZARAKO HAUTESKUNDEAK FRANTZIAN

## Le Peni Eliseoko bidea mozteko bozkatuko dute gaur frantziarrek

Ezkerreko botoemaileek ere Chirac hautatuko dute, eskuin muturraren aurkako erreferenduma bailitzan /19-20

Tunisia

11. kupoia



Munduaz gozatzeko

Babeslea:

